

# EUSKO JAURLARITZAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN NAGUSIA V. PLANGINTZALDIA (2013-2017)

Eusko Legebiltzarra, 2014-03-04

## 1. AURKIBIDEA

Aurkibide honi jarraiki ahaleginduko gara V. plangintzaldiko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusiaren gaineko xehetasunak azaltzen.

## 2. SARRERA

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2013ko abenduaren 30eko batzarrean onartu zuen Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko Plan Nagusi berria.

Bada aurreko Planekin alderatuta berrikuntza nabarmen bat: lehenengo aldiz, Sozietate Publikoetarako ere Euskararen Erabilera Plan eredu bat onartu da.

Bost dira nabarmendu nahi ditudan lege-arauak:

1. Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 Legea.
2. Auzitegi Konstituzionalaren 82/86 epaia.
3. Euskal Funtzio Publikoaren legea, uztailaren 6ko 6/1989.
4. Herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua.
5. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua (7/2007 legea)

Ikus dezagun zer dioten lege-arau horiek:

### **Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 Legea.**

5. art., funtsezko eskubideetariko bat: “Autonomia Erkidegoan kokaturiko Administrazioarekin eta edozein Organismo edo Erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.”

6.1. art.: “Herritar guztiei aitortzen zaie Autonomia Erkidegoan kokaturiko Herri administrazioarekin euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea eta eurek aukeraturiko hizkuntza ofizialean artatuak izateko eskubidea. Eskubide hori baliatzea arian-arian bermatzeko neurri egokiak hartu eta beharrezko diren bitartekoak jarriko dira.”

14. art.: “Lege honetako 6. artikuluan aitorturiko eskubideak praktikan baliatzeko helburuarekin, Euskal Herrian kokaturiko Herri Administrazioko langileak arian-arian euskalduntzeko neurriak hartuko dituzte herri-agintee.”

## **Auzitegi Konstituzionalaren 82/86 epaia.**

“Hizkuntza bat ofiziala da, gizartean duen indarra eta pisua gorabehera, herri-aginteetan eta herri-aginteen artean eta haiek subjektu pribatuekin dituzten harremanetan balio osoz eta ondorio juridiko guztiekin ohikotasunez komunikatzeko tresnatzat aitortzen denean”.

## **Euskal Funtzio Publikoaren legea, uztailaren 6ko 6/1989.**

97.1. art.: “Euskara eta gaztelera dira euskal Administrazio Publikoetako hizkuntza ofizialak, eta bi hizkuntzok erabiltzea bermatu beharko dute Administrazio horiek bere barneko zein kanpoko harremanetan.”

## **Herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua.**

1.2. art.: “EAEn dauden herri-administrazioekin euskaraz jarduteko eskubide osoa du herritarrak eta, beraz, eskubide hori bete dadin, herri-agintek, nork bere esparruan, euskara zerbitzu- zein lan-hizkuntza modura normaltasunez erabiltzeko hartu beharreko erabaki guztiak hartuko dituzte.”

1.3. art.: “Euskal herri-administrazioak beren zerbitzuan diharduten langileek hizkuntza gaitasun egokia lor dezaten saiatuko dira, horretarako beharrezko diren neurriak hartuz.”

4. art.: “(...) entitate bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu beharko du. Era berean, lanpostu bakoitzari hizkuntza eskakizuna ezarriko zaio eta, hala dagokionean, derrigortasun-data ere bai, betiere Dekretu honetan ezarritakoari jarraituz.”

5. art.: “(...) bost urteko iraupena izango duten plangintzaldiak ezarriko dira”.

19. 1. art.: “Euskal herri-administrazioek euskararen erabileraren normalkuntzarako planak onartuko dituzte plangintzaldi bakoitzaren lehenengo urtean.”

Azkenik, **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak ere (7/2007 Legea)** herritarrak aukeratutako hizkuntza ofizialean artatzeko obligazioa ezartzen die Administrazioari eta enplegatu publikoei.

Euskararen Erabilera Plan honen oinarrietan oinarri nagusia da, herritarren hizkuntza ofiziala aukeratzeko eskubidea egiazki eta normaltasunez errespetatua izatea, euskara nahiz gaztelania izan herritarrak aukeratutako hizkuntza. Herritarren askatasun linguistikoa aldarrikapen hutsa ez baizik eta egiazkoa izatera iristea da planaren oinarrian dagoena, euskara nahiz gaztelania izan herritarrak askatasun osoz aukeratutako hizkuntza.

### 3. AURREKARIAK

Ez gara hutsetik hasi. Ibilbide luzea egin da. 1990ean ekin zitzaien Herri Administrazioetan Euskararen Erabilera Planak egiteari.

Aurrekari hurbilenekoak, lau aipatuko ditut:

- IV. plangintzaldiaren ebaluazioan jasotzen diren proposamenak V. plangintzaldirako (ebaluazio hori egin eta bere berri eman genuen hementxe, Legebiltzarrean, Batzorde honetan bertan, joan zen udaberrian).
- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP), Euskararen Aholku Batzordeak egin eta onartu zuena, Eusko Jaurlaritzak ere onartu zuena, eta azkenik Legebiltzar honek ere, Batzorde honen eskutik, bere egin zuena.
- V. Plangintzaldirako irizpide orokorrak, HPSk proposatu eta Euskararen Aholku Batzordeak onartu ondoren EAeko herri administrazio guztietara banatu zirenak, eta Legebiltzar honetan, Batzorde honetan bertan, joan zen udazkenean aurkeztu genituenak.
- Hizkuntza eskakizunen gainean Jaurlaritzaren enkarguz Siadecok egindako ikerketa kualitatiboa, Batzorde honetan aurkeztu genuena.

Kontuan hartu da, azkenik, hizkuntza eskakizunen derrigortasun-data finkatzeko araua, 86/1997 dekretuaren 11.3. artikuluan jasota dagoena betez: EUSTATEk EAeko herritarren euskara gaitasunari buruz argitara emandako datu ofizialen arabera, % 48,46 da plangintzaldi honetarako indizea, aurreko plangintzaldian baino 4,59 puntu altuagoa.

Aurrekari ez ari garenez, konstatazio pare bat egin nahi ditut hasteko, V Plangintzaldiaren abiapuntuaren argazki moduko bat egiteko lagungarri izango zaigulakoan:

**Lehen konstatazioa:** 1990eko lehen Plan haietatik gaur arte Jaurlaritzan ere berealdiko aldaketa gertatu da euskarari dagokionez. Datu bat, oso adierazgarria: 1995ean Jaurlaritzako langileen %23,5 baino ez zen lana euskaraz egiteko gai; gaur egun langile guztien %51,1ek egiaztatuta dauka dagokion hizkuntza gaitasuna, eta beste %9,8k dagokiona baino bat baxuagoa. Beraz, 1995ean %23,5, baina gaur egun %60,9 dira euskaraz neurri batean lan egiteko gai. Duela 20 urte halako bi t'erdi. Guztira, 4.052 langile.

Aurrera egin dugu, baita ere, goi kargudun politikoen euskararen ezagutzari dagokionez. Datu adierazgarri bat: lanean euskara erabiltzeko gai da Gobernu honetako goi kargudunen %73.

Eta oso bistakoa da, azkenik, erabili ere duela 20-25 urte baino askoz gehiago erabiltzen dela euskara gaur Jaurlaritzan. Beraz, etengabe egin dugu aurrerantz Eusko Jaurlaritzan euskaraz aritzeko aukerari dagokionez, eta baita ere euskararen erabilerari dagokionez.

**Bigarren konstatazioa:** aurrerakada hori oso apala izan da euskara lan hizkuntza gisa erabiltzerakoan, ez da izan ahal bestekoa, ez da izan ezta ere behar bestekoa. Horri zuzenean lotuta dagoen zerbait esango dut hasiera beretik, horrela gehiago azpimarratuta uzteko: V Plangintzaldirako Plan Nagusi honen ezaugarri nagusien artean nagusia da, Jaurlaritzan euskara laneko hizkuntza gisa nabarmen gehiago erabiltzeko neurriak hartzea. Hori baita gure Administrazioan dugun etorkizuneko erronka nagusia: euskara lan hizkuntza gisa ere pixkanaka, arian-arian, gero eta gehiago erabiltzea, eta, jakina, eraginkortasunez jarraitzea zerbitzu hizkuntza legez egiten den erabileran dauden gabeziak gainditzeko bidean.

Gaur badira 4000tik gora langile lana neurri batean behintzat euskaraz egiteko gai; baita goi kargudunen % 73 ere. Baina, IV. plangintzaldiaren ebaluazioaren arabera:

- Euskaraz ere dauden testuen % 25 sortzen da euskaraz; beste guztiak gaztelaniaz sortzen dira.
- Idatzizko barne harreman ofizialetan, % 48 gaztelania hutsean egiten da, eta % 6 baino ez euskara hutsean.
- Aplikazio eta programa informatikoetan urria da euskararen erabilera.

Lehenengo Planak egin zirenetik gaur arte egin den ahaleginari etekin handiagoa atara nahi diogu euskararen erabileran. Badakigulako erabilera dela giltzarria, horixe dela bide bakarra euskara indartzeko, eta euskara eta gaztelaniaren arteko bizikidetzat orekatuagoa lortzeko. Helburu dugu guztiok izatea, baita herritar euskaldunak ere, euskararen erabiltzaile handiago eta leialago. Euskaraz badakiten herritarrek, aukera duten guztian eta hala nahi dutenean euskaraz jardutera gonbidatzen ditugu, baita Jaurlaritzarekiko harremanetan ere. Guk gonbidapena egiten diegu; euren da erabakia, eta Jaurlaritzak oso-osorik errespetatuko du beren erabakia. Hau esaten erraza da, baina euskaraz jarduteko gogo hori praktikara eramaterakoan sarritan era askotako gorabeherak sortzen dira. Itxuraz dirudien baino konplexuagoa da hau guztiau, faktore askok eragiten baitute. Pauso horiek eman nahi dituenari laguntzeko makulu eta tresna da Erabilera Plana.

Arau bat dugu sakratua dena: herritarren hizkuntza aukera errespetatzea. Herritarrena da Jaurlaritza, herritarrei zor gatzaizkie, eta herritarrek dute Jaurlaritzarekiko harremanetan euskara edo gaztelania aukeratzeko eskubidea. Eskubide hori errespetatzea da ororen ginetik dagoena.

## 4. EUSKO JAURLARITZAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN NAGUSIA

### 4.1. OINARRIZKO ARDATZAK (Plana zer den / Eragin eremua / Eragin epea)

**Plana zer den:** euskararen erabilera normalizatzeko tresna (tresna hutsa, ez besterik).

**Eragin eremua:** EAEko Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomiadunak (alde batera geratzen dira Justizia Administrazioa, Ertzaintza eta Osakidetza) + lehen aldiz Sozietate Publikoetarako proposamena egiten da eranskin batean (onartu edo ez, beren eskumenekoa da hori).

**Eragin epea:** 2017-12-31 arte.

### 4.2. XEDE NAGUSIA

Eusko Jaurlaritzak euskal gizartearentzat duen hizkuntza-helburua –edo, bestela esanda, hizkuntza ikuspegitik Jaurlaritzak duen euskal gizarte eredua- eta Jaurlaritzaren beraren Administrazioarako planteatzen duen helburua uztarri bereko helburuak dira, normala denez. Gizarte osora begira, Eusko Jaurlaritzaren helburua da euskal gizartean elebitasun iraunkorra (sosteniblea) eraikitzea. Horretarako ezinbestekoa da gaur egun daukagun euskara eta gaztelaniaren arteko elebitasun desorekatua gainditzeko jarraitzea elebitasun orekatuagoa lortzeko bidean. Hori egin ezean, izan, bi hizkuntza izango ditugu, euskara eta gaztelania, biak ofizialak, baina ez guke euskara bigarren mailako hizkuntza izateko arriskua saihestuko. Bi hizkuntza ofizialen arteko oreka eta berdintasuna ditugu gizartean helburu. Euskal gizartearen gogoia da bere Administrazioa egiazki elebiduna izatea. Horren guztiorren ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuetan ere bi hizkuntza ofizialen arteko elebitasun iraunkor eta orekatua dugu helburu. Herritarraren zerbitzura, herritarraren aukera eta askatasuna erabat errespetatuz.

Horregatik da Eusko Jaurlaritzaren 2013-2017 bitarteko Euskararen Erabilerarako Plan Nagusi honen helburu zentrala honako hauex: herritarrak beraiek aukeraturiko hizkuntza ofizialean, euskaraz nahiz gaztelaniaz, atenditzea, herritar guztiak duten hizkuntza ofiziala aukeratzeko eskubidea egiazki betetzea, eta euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza gisa erabiltzea eguneroko jardunean.

Gure sistema, ofizialtasun bikoitzeko sistema da, eta herritarrarena da azken hitza: hala izan behar da, herritarrarena baita bi hizkuntza ofizialen artean zein erabili aukeratzeko eskubidea, eta eskubide hori Administrazioaren eta Administrazioari langileen hizkuntza aukeraren eta hizkuntza jarreraren gaineratik dago. Herritarrarena da eskubidea (hizkuntza ofiziala aukeratzekoa, euskara edo gaztelania), eta Administrazioaren eta bere langileen betebeharra da herritarrak gogoko duen hizkuntzan erantzutea. Eta horrek guztiak eskatzen du Jaurlaritzako goi kargudunen

lidergoa, eta eskatzen du inplikaturiko guztien arteko ahalik eta adostasunik handiena.

### **4.3. HELBURU OROKORRAK + ADIERAZLEAK**

Lau dira Plan honen helburu orokorrak, eta badira, gainera, lau helburu orokor horietan guztietan eragina duten hiru zehar-lerro. Helburu orokorrak dira honakook:

- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea Eusko Jaurlaritzarekiko harremanetan, bost urteotarako lehentasuna emanez zuzeneko arretakoak eta jendaurrekoak diren zerbitzuetan.
- Euskara lan hizkuntza izateko pauso zehatzak, neurgarriak eta aurreragarriak ematea. Gainditu behar den anomalia bat da, bi hizkuntza ofizialen arteko desorekaren seinale garbia da, euskara ere hizkuntza ofiziala izanik eta herri-langileen eta goi kargudunen erdia baino gehiago euskalduna izanik, euskara ez izatea, gaztelania bezala, laneko hizkuntza ohikoa gaur den baino askoz neurri handiagoan. Administrazio elebiduna eraikitzeke erronka nagusia gaur egun ez da euskararen ezagutza, erronka nagusia euskararen erabilera da.
- Herri administrazioen arteko harremanetan euskara gehiago erabiltzea: administrazioak eredugarri izan behar duelako eta legeak bete eta betearazi egin behar dituelako.
- Goi kargudun politikoen lidergoa eta inplikazioa indartzea.

Helburu orokor horietako bakoitzari adierazleak asignatu zaizkio, ebaluazioa erraztu eta ahalbidetzeko.

### **4.4. ZEHAR-LERROAK**

Eta, esan bezala, lau helburu orokor horiek garatzeko badira hiru zehar-lerro:

- Hizkuntza Ofizialak erabiltzeko Irizpideak onartu eta aplikatzea, Sailez Sail.
- Langileen eta erakunde-ordezkarri politikoen euskara gaitasuna handitzea, erabilera bera areagotzeko.
- Langileen eta erakunde-ordezkarri politikoen euskararekiko atxikimendua eta adostasuna areagotzea.

Hiru zehar-lerro hauei ere, pantailan ikus ditzakezuen (eta Planean bertan jaso diren) adierazleak asignatu zaizkie.

## 4.5. NEURRIAK: 1. Herritarren eskubideak bermatu

Lau helburu orokor eta hiru zehar-lerro hauetariko bakoitza garatzeko neurri zehatzak finkatu dira Planean: guztira, 49 neurri. Gainera, dagoeneko esan dudanez, eta hau bada, aurreko Planekin alderatuta, berrikuntza garrantzitsu bat, helburu orokor eta zehar-lerro bakoitzaren jarraipenerako adierazleak finkatu dira, etengabeko jarraipena egin ahal izan dezagun. Guztira, 12 adierazle nagusi (badira azpi-adierazleak ere).

Lau helburu orokorretako lehenengo helburuari dagokionez (herritarren hizkuntza aukeratzeko eskubidea bermatzea), hainbat neurri finkatu dira, pantailan errenkadan ageri direnak (batzuk aipatuko ditut, guztiak Planean dituzue eskura):

- Jendaurreko zerbitzuetan eta gizarte izaerako nahiz izaera orokorreko ataletan **atal elebidunak** sortzea; baita **euskarazkoak** ere
- Derrigortasun data egiaztaturik duten lanpostu guztietan **funzio batzuk euskaraz** betetzea
- **Jendaurreko zirkuituak** aztertu eta eragitea; jendaurreko lanpostuen **mapa** osatzea
- Jendaurreko **langileak prestatzea** hizkuntza eskubideak berma ditzaten.
- **Harrera protokoloak** prestatu edo berrikustea
- Zerbitzua euskaraz emateko prestatuta dagoela **adieraztea**
- **Ereduak** eta baliabide **informatikoak** egokitzea
- **Aukera** ematea herritarrari harremanak euskaraz lehenesteko
- Komunikazioen **kalitatea** bermatzea

## 4.6. NEURRIAK: 2. Lan hizkuntza

Bigarren helburu orokorrari dagokionez (euskara ere lan hizkuntza –ereizatea), bost neurri aurreikusi dira. Batzuk aipatuko ditut:

- Jendaurreko zerbitzuetan eta gizarte izaerako nahiz izaera orokorreko ataletan **atal elebidunak** sortzea; baita **euskarazko atalak eta zirkuituak** ere.
- Derrigortasun data egiaztaturik duten lanpostu guztietan **funzio batzuk euskaraz** betetzea

Lehen ere esan dugu: herritarrari zor zaio administrazioa, herritarrarena da hizkuntza aukeratzeko eskubidea, eta eskubide hori betetzeko obligazioa dauka Administrazioak. Horregatik, normala da lanpostua betetzerakoan hizkuntza eskakizun bat eskatu baldin bada, lanpostu hori bete duenak eguneroko lanean

euskara ere lanerako hizkuntza gisa erabiltzea. Pixkanaka, arian-arian, zailtasunak gainditzeko laguntza hartuz, baina normaltasunerako eta orekarako bidean. Lehen ere esan dugu: administrazio elebiduna eraikitze bidean, arazo nagusia ez da euskararen ezagutza urria, euskararen erabilera baizik. Erabiltzen denaren eta erabili litekeenaren arteko aldea da pixkanaka gainditu behar duguna.

#### 4.7. NEURRIAK: 3. Administrazioen arteko harremanak

Hirugarren helburu orokorrari dagokionez, hainbat neurriren artean batzuk aipatuko ditut:

- Administrazioen arteko akordioak bultzatzea euren arteko harreman hizkuntza euskara izan dadin gaur den baino neurri handiagoan.
- Administrazioen artean edo hobeto esanda administrazioetako zenbait atalen artean euskarazko harreman-**sareak** sortzea.
- Euskarazko sareen **zabalkundea** egitea
- Euskarazko **eskaria**, euskararen ezagutzaren arabera izan litekeenaren alderantz handitzea.
- **HAKOBA**ren bitartez bideratzea hainbat eginkizun.

Gizartearen aurrean, administrazio elebiduna gogoko duen gizartearen aurrean, legea inork baino eraginkortasun handiagoz betetzea dagokigu administrazioei, eta uste dugu eredugarri izateko ahalegina areagotu behar dugula. Hori dute helburu neurri hauek.

#### 4.8. NEURRIAK: 4. Erakunde-Ordezkarien lidergoa

Aurreko helburuarekin eta neurriekin lotura zuzena dute laugarren helburu honi dagozkion neurriek. Neurri hauek dira erakunde-ordezkarien lidergoa indartzeko eta euskararen normalizazioa erakunde bakoitzaren ohiko jardunean txertatzeko. Neurri batzuk aipatuko ditut:

- **Erabilera planei buruzko informazioa** eta formazioa ematea
- **Erabilera planaren kudeaketarako Batzordeen** funtzionamendu egokiari eustea
- Erakunde-**ordezkariak** euskararen normalizazio lanetan egunerokoan eredugarri izan daitezen lantzea, barruko jardunean nahiz kanpoko ekitaldietan
- Erakunde-ordezkarien arteko **bilkurak** antolatzea: trukea eta elkarlana

#### **4.9. ZEHAR-LERROETARAKO NEURRIAK: 1. Irizpideak**

Hizkuntza Ofizialen erabilerarako Irizpideak dira Erabilera Planaren oinarri nagusietarikoa. Auzitegi Konstituzionalak 86ko epaian esandakoaren arabera, ofizialtasun linguistikoaren adierazgarri dena da hizkuntza ofiziala lege balio osoarekin erabiltzea Administrazioaren barruko harremanetan, Administrazioen artekoetan eta Administrazioaren eta herritarraren artekoetan, edozein delarik ere bere pisua gizaratean. Horrek eskatzen du hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak eta jarraibideak finkatzea, Auzitegi Konstituzionalak baliokotzat emandako erabilera hori modu arrazoizkoan eta eraginkorrean bermatu nahi baldin bada. Eta hori egitea are beharrezkoagoa da bi hizkuntza ofizialen erabileran dagoen desoreka gainditu eta euskararen erabilera areagotuko baldin badugu. Irizpide multzo bikain bat finkatzen da Planean, arloz arlo sailkatuta.

Lau neurri ezarri dira irizpide horien aplikazioa errazteko helburuarekin, pantailan azaltzen diren laurak.

#### **4.10. ZEHAR-LERROETARAKO NEURRIAK: 2. Hizkuntza gaitasuna**

Lana euskaraz egiteko ohitura oraindik ere txikia denean, elebidun asko direnean euskara bigarren hizkuntza gisa eskuratu dutenak eta euskaraz gaztelaniaz baino erraztasun txikiagoa dutenak, euskara eta gaztelaniaren arteko desorekak hain nabarmena izaten jarraitzen duenean, beharrezkoa ez da bakarrik langileak euskalduntzen jarraitzea, baizik eta beharrezkoa da euskara lan hizkuntza gisa erabiliko duten eta erabiltzen duten langile eta erakunde-ordezkariei elebidunei trebakuntza eskaintzea eta gaitasuna hobetzeko prestakuntzarako aukera ematea. Horretarako hainbat neurri jasotzen dira Planean (pantailan daudenak).

Ez dut aipatu gabe utzi nahi, arlo honetako neurrien artean, lanpostuei ezarritako hizkuntza eskakizunak berraztertzei aukera finkatzen dela, beharrezkoa jotzen denean. Sail eta erakunde autonomiadun bakoitzaren esku dago hori egitea, hain zuzen ere errealitatea bertatik bertara eta zuzenean bizi eta ezagutzen duena baita halakorik egiteko egokiena.

#### **4.11. ZEHAR-LERROETARAKO NEURRIAK: 3. Euskararekiko atxikimendua**

Legeriaren helburua eta herritar gehienek gogoan zein den jakina da: administrazio elebiduna. Inertzia, ordea, badakigu euskara eta gaztelaniaren arteko desorekaren aldekoa dela, ez dela elebitasun orekatuaren aldekoa. Hori pixkanaka gainditzeko beharrezkoa da euskararen erabilerarekiko atxikimendua eta adostasuna indartzea, eta horretarako aurreikusten dira pantailan azaltzen diren lau neurriak.

## 5. HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK

### 5.1.HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK:Arau orokorrak

Bi hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideak ematen dira. Araubide orokorra da: prozesuaren helmuga irudikatzen dute irizpide hauek. Irizpide orokor hauen zehaztapena egingo dute Sailek eta erakunde autonomiadunek beren erabilera plan propioetan. Izan ere, Sail eta erakunde autonomiadun bakoitza murgildurik baitabil orain Erabilera Plan Nagusi honen aplikazio eta kudeaketarako bakoitza bere egitasmo espezifikoak egituratzen. Planaren ebaluazioa egiten den bakoitzean ebaluatuko da irizpide hauen betetze-maila.

Ez ditut, noski, irizpide guztiak eta bakoitza hemen banan bana aletuko. Planean bertan jasota daudelako. Egingo dudana da irizpideak zein alorretakoak diren aipatu.

Halere, bada nabarmendu nahi dudan zerbait. Nabarmenduko nuke, erakunde-ordezkarien agerraldi publikoetarako irizpidea ematen dela Plan honetan. Honen aurreko Planaren ebaluazioak agerian jarri zuen, Gubernuko erakunde-ordezkarien euskararen erabilera agerraldi publikoetan % 29koa izan dela. Plan honetan finkatu da, euskaraz jarduteko gai diren goi kargudunek agerraldi publikoetan, oro har, emango diotela euskarazko jardunari gutxienez gaztelaniazkoari ematen dioten pisua, bai denborari dagokionez, bai gaiaren tratamenduari dagokionez. Irizpide hori egokitu beharko da agerraldi publiko bakoitzaren helburu eta hartzailen hizkuntza ezaugarrietara, eta euskaraz jarduteko erraztasunik ez duten goi kargudunek ere beti egingo diote lekua euskarari beren ahalmenen arabera. Ahalegin berezia egin asmo dugu Legebiltzarrean eta hedabideen aurrean egiten diren mintza jardunetan.

Eta nabarmendu nahiko nuke beste ekimen bat ere Planean jaso duguna: Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren arteko batzorde bat eratzeke proposamena egiteko asmoa dugu Legebiltzar honi, hain zuzen ere bien arteko harreman-hizkuntzen nondik norakoak zehazteko, Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren arteko harreman hizkuntzak esan nahi dut.

Hizkuntza irizpideak ondorengo arloetan finkatzen dira: harreman komunikatiboetan (ahozko nahiz idatzizkoetan, komunikazio telematikoetan, harreman hizkuntza euskara izan nahi duten herritarrekiko eta administrazioekiko harremanetan).

## **5.2. ITZULPENAK (HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK)**

Idazketa elebidunerako, korredakziorako eta itzulpenetarako jarraibideak finkatzen dira.

## **5.3. BESTE ESPARRU BATZUK (HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK)**

Pantailan ageri diren esparru guztiak kontuan hartzen dira beren jardunean hizkuntza irizpideak aplikatu daitezkeen. Esate baterako, langileei beren prestakuntza profesionala hobetzeko eskaintzen zaizkien ikastaldiak ahal den guztian bi hizkuntza ofizialetan eskainiko zaizkie, eta, beraz, handitu egingo da euskarazko saioen eskaintza.

Prestakuntza profesionalean bezala diru-laguntzetan edo argitalpenetan, edo internet, intranet eta gizarte sareetan, edo iragarki eta publizitatean, edo tresna eta aplikazio informatikoetan finkatzen dira hizkuntza irizpideak. Esate baterako, programa informatiko eta aplikazioak bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko prestaturik egongo dira, eta lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna gaindituta daukaten langileen kasuan euskarazko bertsioa hobetsiko da.

Kontratazio administratiboan kontuan hartu behar diren hizkuntza irizpideak ere jasotzen dira Planean, eta gainontzeko irizpideen kasuan bezalaxe, kontratazio administratiboaren kasuan ere, beren jarraipena egiteko sistema aurreikusten da. Irizpide horiek dira Eusko Jaurlaritzan 2006ko otsailetik indarrean daudenak.

## **6.1. ADMINISTRAZIO ATALAK V. PLANGINTZAN**

86/1997 Dekretuari jarraiki, V. Plangintzaldirako Erabilera Planaren beste oinarrietariko bat atal administratibo elebidunak eta euskarazko atalak dira. Kontuan hartuz aipatutako Dekretuak ezarritakoa eta derrigortasun-indizea, atal elebidunak izendatu behar dira gazteriarekin zuzeneko harremanak dituzten arloetan, gizarte izaerako zerbitzua ematen duten arloetan eta baita ere izaera orokorreko ataletan.

## **6.2. ADMINISTRAZIO ATALAK**

Atal elebidunak dira beren funtzioak bi hizkuntza ofizialetan, batean zein bestean, betetzen dituztenak. Elebidun izendatzeko bete behar diren baldintzak dira: lanpostuetako % 60tik gora izatea derrigortasun-data dutenak, atalburuak dagokion hizkuntza eskakizuna edo bat baxuagoa egiaztatua izatea eta langileetarikogutxienez % 60k dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea.

Euskarazko atalen kasuan, kontuan hartuz atal horiek direla beren funtzioak batez ere euskaraz betetzen dituztenak, halakotzat izendatzeko baldintzak dira atalburuak

eta lanpostu guztiek (edo ia guztiek) derrigortasun data izatea eta atalburuak eta langile guztiek (edo ia guztiek) egiaztatua izatea beren hizkuntza eskakizuna.

Kasu guztietan, laugarren hizkuntza eskakizuna duten langileen kasuan, kontuan hartuko da hirugarrena izatea egiaztatuta.

Atal elebidunak eta euskarazko atalak izendatzeko prozedura ere finkatu da: Sail eta erakunde autonomiadun bakoitza izango da, bere Euskara atalaren bidez, lehenengo hiruhilekoan izendapen horien proposamena egingo duena, eta HPS izango da izendapena egingo duena.

### **6.3. HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK ETA DERRIGORTASUN DATAK V. PLANGINTZALDIAN**

Euskal Funtzio Publikoaren Legean eta 86/1997 Dekretuan jasotakoaren arabera beharrezkoa da lanpostu guztiei asignaturiko hizkuntza eskakizunetatik Plangintzaldi honetan derrigortasun-data izango dutenak zehaztea. Zehaztapen hori egiten da plangintzaldian bete behar den derrigortasun-indizearen arabera, eta 2013ko urtarrilaren 1ean indarrean dauden EUSTATen datu demolinguistikoak dira indize hori kalkulatzeko erabili behar direnak, "euskaldunak + ia euskaldunak/2" formula aplikatuz. Horrek esan nahi du, Erabilera Plan honetako indizea % 48.46 dela (aurreko Plangintzaldikoa baino 4.59 puntu altuagoa, aurrekoa % 43.87 izan baita).

### **6.4. DERRIGORTASUNAK EZARTZEA**

Indize berria, beraz, % 48.46 da. Indize hori beteko da, eta gutxieneko abiapuntutzat hartzen da indize hori Erabilera Planean. Jaurlaritzak legeria urratuko luke derrigortasun indizea hortik behera aplikatuko balu, eta beharrezko den kasuetan hortik gora jo dezake, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak 2011n emandako epaiaren arabera.

Erabilera Planean jasotzen dira indize horren aplikaziorako irizpideak: bederatzi dira, guztira. Irizpide guztietan nagusia, lehenengoa, lanpostuaren jendaurrekotasuna da. Jendaurreko zuzeneko arretakoak diren lanpostuek (esate baterako, *Zuzenean* zerbitzukoek edo antzeko ezaugarriak dituztenek) derrigortasun data izango dute. Horien ondotik datoz atal administratibo elebidunetako lanpostuak, gizarte izaerakoak, izaera orokorrekoak edo lanpostuen % 60tik gora hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten atalak, besteak beste derrigortasun-data duten lanpostuak kontzentratzea lagungarri izan litekeelako euskara lan hizkuntza gisa erabiltzeko.

## 6.5. DERRIGORTASUNAK JARTZEKO PROZEDURA

Sail bakoitzak eta erakunde autonomiadun bakoitzak gutxienez derrigortasun-indizea betetzera joko du.

Derrigortasun-datak jartzeko prozedura da aurtengo lehen hiruhilekoan gauzatzen ari dena:

- Sail bakoitzak bere arloko hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak berretsi eta/edo aldatzeko proposamena egingo du. Hizkuntza eskakizunak berraztertu eta aldatu behar direnak aldatzera jo, eta gauza bera derrigortasun-datei dagokienez, betiere indize berria kontuan hartuta, noski.
- Segidan, Funtzio Publikoko Sailburuordetzari tokatuko zaio proposamen orokorra egitea.
- Eta azkenik HPS izango da, 86/1997ko Dekretuaren eta Funtzio Publikoko Legearen arabera, aginduzko txostena egingo duena.

## 7.METODOLOGIA

Metodologiaren ezaugarri batzuk aipatzeko, ondorengook nabarmenduko nituzke:

- Diagnostiko kuantitatibo eta kualitatibo batetik abiatzen da.
- Gidari edo iparrorratza Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko irizpideak dira.
- Emaitzetara bideratutako metodologia da, eta bateratua, Sail guztiak eta erakunde autonomiadun guztiak bide bertsutik ibil daitezten.
- Helburu bakoitzak adierazle propioak ditu.
- Eta badu antolakuntza egitura bat.

### 7.1. METODOLOGIA (URRATSAK)

Euskararen Erabilera Plan hau Jaurlaritzaren Plan Nagusia da, eta Plan honen garapenerako Sail bakoitzak bere kudeaketa plan propioa egingo du 2014ko lehen hiruhilekoaren barruan. Eta horretarako organo eragileak Saisetako Euskara Atalak izango dira.

Pantailan ikus ditzakezue metodologia honetako urratsak:

Sailaren edo erakunde autonomiadunaren diagnostikoa.

Helburua finkatu.

Adierazleak ezarri.

Estrategiak deskribatu.

Urtez urteko kudeaketa plana diseinatu.

Plana kudeatu eta jarraipena/ebaluazioa.

## 7.2. METODOLOGIA (KOMUNIKAZIOA)

Sail bakoitzak bere komunikazio egitasmo propioa izango du, hurbilekoa, garrantzi betekoa baita nahiz erakunde-ordezkariek hala langileak, Sailez Sail eta erakunde autonomiadunetan, inplikatzeari, eta inplikatzeko behar da lehenik eta behin informazio egokia.

Erabilera Planak Jaurlaritza osoari eragiten badiotzen ere, zuzeneko parte hartzaile nagusiak ondorengook izango dira: batetik, jendaurreko eta gazteriarekin erlazionatutako ataletako langileak, atal elebidunetakoak, eta, bestetik, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dutenak. Aukera izango dute parte hartzaile zuzenak izateko, euren hala nahi badute, hizkuntza eskakizuna -nahiz eta derrigortasun datarik gabe eduki- egiaztatuta dutenak.

Planak zuzenean eragingo dien herri-langile eta zerbitzuen artean, nabarmendu nahi ditut, hain zuzen ere lan hizkuntza gisa euskara erabiltzeko gai diren langileak. Esan bezala, Planaren parte hartzaile nagusiak –ez bakarrak- izango baitira, hizkuntza eskakizuna nahitaezkoa izanik dagokien hizkuntza eskakizuna (edo bat baxuagoa) egiaztatu duten langileak; eta horiekin batera, hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa ez izan arren lana euskaraz egiteko gai diren eta hartarako borondatea duten langileek ere aukera izango dute euskara lan hizkuntza gisa erabiltzeko. Helburua da parte-hartzaileek gutxienez funtzio komunikatiboren bat edo beste betetzerakoan euskara erabiltzea lan hizkuntza gisa. Lan euskara erabili dezakeenari erabiltzeko aukera, bultzada, babesa eta laguntza ematea da Plan honen egiteko nagusia, betiere, berriro diot, herritarraren hizkuntza aukera eta hizkuntza eskubideak eraginkortasunez errespetatuz.

## 7.3. METODOLOGIA (Plan Nagusiaren jarraipena eta ebaluazioa)

Ebaluazioak hiru epealdi izango ditu: urtez urtekoa, tarteko ebaluazioa (2015eko amaieran egingo dena) eta amaierako ebaluazioa (2017ko amaierako betetze maila aztertuko duena). Jarraipenaren ardura Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorrarena da, eta HPS izango da ebaluazio txostenak egingo dituenak.

Ebaluazioak alderdi kuantitatiboa eta kualitatiboa, biak, jasoko ditu. Tarteko ebaluazioan, 86/1997ko Dekretuaren arabera hala tokatzen zaien herri-administrazio

guztiak hartuko dira kontuan, eta horren berri Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluari eta Legebiltzarrari emango diegu.

## **8. ANTOLAKUNTZA EGITURAK ETA BALIABIDEAK**

### **8.1. EGITURAK**

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra izango da jarraipen orokorrerako organoa.

Kide izango dira HPSko arduradunak –ordezkaritza teknikoa barne, noski-, Saisetako Euskara Atalen ordezkariak, IVAP eta Funtzio Publikoko zuzendariak, eta Langileen Batzordearen ordezkaria.

Sail eta Erakunde Autonomiadun bakoitzak bere Batzorde Kudeatzaile propioa izango du, Saileko euskara Atalaren ardurapean, eta HPS eta IVAPen parte hartzearekin.

Eta izango da, baita ere, Hizkuntza Normalizazioko Teknikarien Batzordea.

### **8.2. BALIABIDEAK**

Egitura horrezaz gain, Erabilera Plan honen garapenerako baliabideen artean aipatu behar dira HPS (gidaritza orokorra dagokio), IVAP (prestakuntza, hizkera eta itzulpengintzaren ardura dagokio) eta Saisetako Euskara Atalak (hauek dira zutoin nagusiak).

Hauxe da guztia. Orain hitza emango diot Herri Administrazioetako Hizkuntza Normalizazioko zuzendari Gotzon Loberari, labur-labur bada ere, Sozietate Publiko eta Zuzenbide pribatuko Erakunde Publikoen Erabilera Planetarako eredu gisa onartu denaren berri emateko.

Bukatu nahi dut azpimarratuz euskara eta gaztelania, biak nahi ditugula gure jardunean, baina gaur baino askoz neurri orekatuagoan, euskarak ez baitauka bigarren mailako hizkuntza zertan izanik Jaurlaritzako eguneroko jardunean; argi esanda, euskararen erabileraren alde jardun nahi dugu modu proaktiboan, progresibitatea aplikatuz, adostasuna landuz, malgutasunez baina etengabe. Hori dugu bost urteotarako erronka. Beti eta ororen gainetik herritarren hizkuntza aukera errespetatuz.

Jakina, Lobera jaunak amaitu bezain laster, zuen galderei erantzuteko eta zuen iritziak entzuteko prest izango gaituzue.

Eskerrik asko. Lehenengo eta bat, agurtu nahi dizuet eta eskerrak eman zuekin egoteko parada hau eskaini didazuelako.

Sailburu andreak bezala sailburuorde jaunak esan dutenez, sektore publikoarentzat eman dira irizpideak lehenengoz V. plangintzaldi honetan. Segidan, eta labur, azalduko ditut zertzelada nagusiak.

## **Eragin eremua**

Plan hau dagokie sailei atxikitako sozietate publikoei, zuzenbide pribatuko erakunde publikoei, eta sektore publikoko fundazio eta partzuergoei.

## **Betebeharrak**

Sektore publikoaren betebeharrak ezartzen dituzte, nagusiki, xedapen bi hauek: Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak; eta abenduaren 22ko 6/2003 Legeak, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutua onartu zuenak.

Izan ere, 86/1997 Dekretuaren laugarren xedapen gehigarriak dioenez: *“1. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioei lotuta egonik zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, nahitaez euskara eta gaztelaniaren erabilera bermatu beharko dute herritarrekin harreman zuzenak dituzten zerbitzuetan”.*

*“2. Helburu hori betetzeko, elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publiko horiek, Dekretu honetan ezarritako irizpideak erabilita, erakundeetako bakoitzean ezarri beharreko helburuak zein izango diren aztertu eta helburu horiek benetan bete daitezzen hartu beharreko neurriak hartuko dituzte. Ondoren, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari emango diote horren berri, Dekretu honen 7. artikuluan ezarritakoari jarraituz”.*

Abenduaren 22ko 6/2003 Legeak, berriz, 38. artikuluan ezartzen duenez, *“erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzeekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dute”.*

**Xede nagusia**, beraz, hau da: Euskararen erabilera bermatuko dute herritarrekin zuzeneko harremanak dituzten zerbitzuetan, herritarrak aukera izan dezan nahi duen hizkuntza hautua egiteko.

Xede nagusi horrekin batera, lau helburu orokor ezarri dira sektore publikoko entitateentzat:

1. Arretako eta jendaurreko zerbitzuetan, ahozkoan eta idatzizkoan, herritarrari harrera euskaraz egitea.
2. Irudi korporatiboan eta hizkuntza paisaian euskararen erabilera bermatzea.
3. Langileen euskara gaitasuna handitzea, eta

4. Euskararen normalizazio prozesua entitatearen jardunean integratzea, tokian tokiko erabilera planak onartuz.

Neurriei dagokienez, lehenengoa harrerari dagokio. Horren ildotik, neurri hauek proposatu dira:

- **Herritarrei** zuzendutako ageriko eta idatzizko elementuak euskaratzea, eta langileei, besteak beste, ereduak eskuratzea.
- Euskarazko arreta bermatzeko **prozedurak** ezartzea, eta
- Langileen **sentsibilizazioa** eta parte hartzea bultzatzeko ekimenak sustatzea.

Bigarren neurriak entitateen irudiaren gainean dihardu. Horri dagokionez, neurri hauek proposatu dira:

- Seinaleak, **errotulazioa**... euskaraz ere jartzea, halakoak falta diren lekuetan.
- **Web** orriak eta aplikazioak euskaraz ere jartzea, eta
- Elementu **korporatiboak** euskaraz ere jartzea.

Hirugarren neurria hizkuntza gaitasunari dagokio. Horretarako, neurri hauek proposatu dira:

- Herritarrekin harremana duten lanpostuen **definizioan** txertatzea behar den euskara gaitasuna, eta
- Langileen euskara gaitasuna hobetzeko **prestakuntza** ematea.

Euskara integratzeko neurrien ikuspegitik, honako hauek proposatu dira:

- Erabilera **plana** abian jartzea.
- Erabilera planei buruzko **informazioa eta formazioa** ematea erakunde-ordezkariei.
- Erabilera planaren inguruko **komunikazio** ekimenak lantzea, eta
- Hizkuntza **irizpideak** erabaki eta ezartzea.

Beste alde batetik, sektore publikoa osatzen duten entitateen ezaugarriak askotarikoak direla kontuan hartuta, metodologia bat proposatu da, nork bere neurrian eta errealitatearen arabera egin dezan bere plana. Hori dela eta, abio komun bat eskaini nahi izan zaie, bai eta jarduteko metodologia ere. Horretara, hauxe proposatu da:

- Lehenengoz, diagnostikoa egitea.
- Ondorik, plangintzaldirako erabilera plana egitea.
- Haren ondorioz, urteko plana egitea proposatu zaie.

- Haren ondorioz, inplementazioari ekitea proposatu da, eta, azkenik,
- Jarraipena eta ebaluazioa egitea hiru unetan:
  - urtekoa
  - tartekoa (2015)
  - amaierakoa (2017)

Hori guztia egiteko, EME (Erreferentziazko Marko Estandarra) markoa proposatu zaie, lanari ekiteko. Marko horrek lau ardatz nagusiok ditu:

- Harrera: protokoloa zehaztea.
- Bezeroak/Erabiltzaileak: ele bietan; presentzia bermatzea.
- Produktua/Zerbitzua: bezeroak eskatutako hizkuntzan ematea.
- Hizkuntza paisaia eta irudia: biak bermatzea.

Baliabide eta egiturei dagokienez, lagungarri gerta daitezkeen orientabide batzuk eskaini zaizkie, helburu hauek dituztenak:

- Giza egiturak eta inbertsioa zehaztea.
- Arduraduna izendatzea.
- Euskara batzorde edo lantaldeak eratzea.
- Hizkuntza kudeaketaren gastuen aurreikuspenak egitea, eta
- Aliantzak bilatzea.